

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Mendekotasunari arreta emateko Nafarroako gastu publikoa 206 eurokoa da biztanleko, Estatuko batez bestekoa halako bi

Hala ondorioztatzen da Gizarte Gaietarako Behatoki Iraunkorrek egindako lehen azterketatik, Foru Gobernuak Nafarroako errealitate sozialari buruzko datuak eskaintzeko sortu duena

Lunes, 23 de marzo de 2015

Mendekotasuna duten pertsonen arretarako urtero 154,54 milioi euro inbertitzen da Nafarroan: kopuru horretatik, Administrazioak % 85 jartzen du, hau da, 206 euro biztanleko, Estatuko batez bestekoa ia halako bi (104 euro).

Inbertsio horretaz 10.679 pertsona baliatzen dira, eta Nafarroako Gobernuak kopuru horren % 78 jartzen du (120,17 milioi). Estatuko Administrazio Orokorrek % 7 (11,58 milioi), eta mendekotasun-zerbitzuen erabiltzaileen ekarpenek % 15 (22,77 milioi).

Hala ondorioztatzen da Gizarte Gaietarako Behatoki Iraunkor berriak egindako lehen azterketatik. Azterketa hori

gaur goizean aurkeztu du [prentsaurrekoan](#) Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Otok.

Bere agerraldian, Mariano Otok gogoratu du Mendekotasun Legeak bere azalpen-zatian ezartzen zuela mendekoak diren pertsonen arreta Estatuak, autonomia erkidegoek eta erabiltzaileek finantzatuko zutela, alde bakoitzak % 33 jarriz. Nolanahi ere, Oturen arabera, Estatuaren ekarpenak, 2012an sartutako lege-aldaketatik, "behera egin du denboran" %7ra jaitsi arte; hala, Nafarroako Gobernuak ere laguntza handitu behar izan du aurrekontua handituz, "bizitokien gaian bereziki".

Mendekotasunaren arretaren kostua

Nafarroako mendekotasun-arretan egindako inbertsioari buruz



Desgaitasuna duen pertsona.

egindako azterketa horrekin, Foru Gobernuak Comptos Ganberak 2012an egindako gomendioari erantzun dio.

Kalkulua egiteko egoitza-zentroen eta eguneko zentroen kostuak aintzat hartu dira (Nafarroako Gobernuarenak nahiz itunpekoenak), gai horri lotutako prestazio ekonomikoak; mendekoak direnentzako zerbitzuak, laguntza telefonikoa edo egokitutako garraioa, esaterako; kontratuak okupazio-zentroekin, eta diru-laguntzak autonomia sustatzeko programetarako mendekotasuna prebenitzeko. Gainera, mendekotasun-maila guztiak jaso dira, `osagarria´ ere barneratuz (gizarte-mendekotasuna, buruko gaixotasuna...), Nafarroan artatzen dena, nahiz eta Mendekotasun Legeak ez bermatu.

Horrenbestez, partida handienak egoitza-zentroetarako eta eguneko zentroetarako dira (desgaitasuna dutenentzat, buruko gaixotasuna dutenentzat edo adinekoentzat): 73,5 milioi euro; 0-6 urte arteko haurrentzako arreta goiztiarra (27,9 milioi); familia-ingurunea zaintzeko laguntza ekonomikoak (19,5 milioi); zerbitzuari lotutako prestazioak (egoitzetarako eta eguneko zentroetarako laguntzak), 12,5 milioi euroekin; eta Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak emandako zerbitzuak, mendekotasuna baliozkotzeko esaterako (7,8 milioi).

Laburbilduz, mendekotasunaren kostuaren % 79 pertsona horiei zerbitzuak emateari dagokio, eta % 21 ematen diren laguntza ekonomikoekin. Kopuru guztiaren % 95 Mendekotasun Legeak eskatutako gutxieneko maila betetzeko erabiltzen da, eta % 5 maila `osagarria´ izenekorako; azken hori ez du legeriak bermatzen, baina, aipatu den moduan, Nafarroan artatzen da ere.

Gizarte Gaietarako Behatoki Iraunkorra

Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Otok Nafarroako Gizarte Gaietarako Behatoki Iraunkorra (OPASNA) aurkeztu du ere gaur goizean. Haren bidez, Foru Komunitateko gizarte-errealitateari buruzko datuak nahiz azterketa jarraituak izateko beharrari erantzun nahi zaio. Behatoki horrekin, gizarte-zerbitzuen arloan hainbat eragilek Nafarroan egindako jardueren eragina jakin eta ebaluatu ahalko da.

Behatoki horretatik, jendearentzat irekita izango den webgune bat abian jarriko da estatistika-datuekin, gizarte-zerbitzuetako gai jakin batzuei buruzko aldizkako txostenak egingo dira, garrantzitsutzat jotako berariazko beste alderdi batzuei buruzko txostenak, eta erreferentzia dokumentalak eskainiko dira.

Behatokiak 102.801 euroko aurrekontua du, eta bertan bost pertsonak egingo dute lan. Haietatik, hiru Gizarte Politiken Departamentuko Plangintza, Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuko teknikariak, eta beste bi teknikari lanaldiaren zati batean ariko direnak eta beste zerbitzu batzuetatik etorritakoak.

Gainera, Gizarte Politiken Departamentuko egitura organikoaren zerbitzuko zuzendariak eta zuzendariordeak osatutako batzordeak behatokiak garatutako lana bideratuko du, bi hilean behingo bilkurekin.

Helburuak eta lan-esparruak

Nafarroako Gizarte Gaietarako Behatoki Iraunkorraren helburuak dira; epe laburrean, datu orokorren iturriak batu eta identifikatzea, Europako nahiz Estatuako testuinguruak; Departamentuaren beraren eta Nafarroako beste iturri batzuen datuen mapa bat egitea; eta lortutako nahiz landutako informazioa zabaltzea.

Epe ertainean, gizarte-politiken eragina aztertzea jasotzen da, serie historiko batean zehar lortutako datuen arteko alderaketak egitea eta gizarte-zerbitzuen arloan sortutako eta indarra hartzen ari diren errealitateak hautumatea. Halaber, epe luzera, behatoki honek lortutako eta landutako datuen balioa, kalitatea eta zorrotasunaren ospea erdietsi nahi da.

Arreta berezia jarriko den lan-esparruei dagokienez, nabarmentzen dira: immigrazioa, haurren ongizatea, desgaitasuna eta boluntarioria, bai eta Nafarroako Gobernuak onartutako plan edo estrategiek zehazten dituztenak.